

Gure proiektuaren lehenengo idea aurkeztu genuenean, modu zabalean egin genuen, eta oraindik falta zitzaigun forma ematea eta gure jokaera justifikatzen zuten helburuak zehaztea. Garatzen joan ginen heinean, tailer didaktiko batzuk egin genituen auzoko komunitatearekin, okindegia (eskuak masan) eta zigiluen sorkuntza (tanpografia), herritarrek datuak babesteko daukaten eskubideei buruz hitz egiteko bideozaintzan arreta berezia jarriz, non gure ideiak azaltzeaz gain, aurrera egin ahal genuen jasotako feedbackagatik.

Horri esker, baita auzoko jendeari ere, bideozaintzari buruzko eskubideei buruz kalean dauden kezka eta zalantzetan gehiago zentratzeko aukera izan genuen.

Kamera guztiak izan arren eta kaleetan presentzia poliziala egon arren, jendea oraindik ez dela seguru sentitzen izan zen sentipen orokorra. Bestalde, bideozaintzaren bidez lortutako irudien eskubideei buruzko protokoloetan pixka bat sakontzen eta sartzen saiatzen ginenean, ez zeuden jarraibide oso argiak jakiteko nola egin behar genuen, norengana jo behar genuen eta zein formaren bidez.

Proiektuaren garapenean, Bilboko San Frantzisko auzoaren bideozaintzako 36 kameren dispositiboa aztertu genuen, honako hauek aztertu eta hausnartzuz:

- Horrelako gailuak garatzen dituzten enpresen teknologia (HIK Vision & Avigilion).
- Dagokion seinale etikoa eta bere lege berezitasunak.
- Agintari eskudunek espazio publikoan bideozaintzaren arloko eskubideak gauzatzeko protokoloa betetzea (Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritza).
- Herritarrek eskubideak ezagutzea.

Prozesuan, “Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren” abokatu baten telefono bidezko aholkularitza hartu zuen parte, zenbait kezka konpontzeko (edozein hiritarrek izan ahal duen bezala), Bilboko Udalari gure irudiak eskura ditzala eskatu genion, gardentasun atariak teorikoki bermatzen duen bezala, Udaltzaingoarekin, Ertzaintzarekin eta datuak babesteko Bilboko ordezkariarekin hitz egin genuen, 4-1997, 3-2018, 7- 2021 lege organikoak ikasi genituen (funtsezkoa datuen babesa eta bideozaintza aipatzen direnean), prozesua laburtzeko webgune bat egin genuen, ia 350 baguette ogi-poltsa serigrafiatu genituen bi tintatan, lau ilustrazio desberdinekin eta QR kode batekin, Udalak gai horri buruz duen dokumentu ofizialetara bideratzeko. Lau tokiko saltokiekin hitz egin genuen, poltsa estanpatuak uzteko eta gaiarekin zerikusia duten pertsonen eskubideen sozializazioarekin eta jarduera pedagogikoarekin konprometitutako lagun sare txiki bat sortzeko, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuan Arartekoak antolatutako bideozaintzari buruzko jardunaldi berezi batean izan ginen gure kezka azaltzeko. Laburbilduz, ahalegin handia egin genuen ondorio honetara iristeko:

Europako Erkidegoko eta Espainiako Estatuko legeek bideozaintzan bermatutako eskubideak gizarteratzeko gailu pedagogikoak lantzen jarraitu behar da, proiektura pertsona gehiago batu behar dira, komunitatean Bilboko Udalari eta Eusko Jaurlaritzari kritika eraikitzaileak egiteko, eskubide horiek erabiltzeko protokoloak hobetzeko, hiritarrek ezagutzen ez dituztelako. Eta datuen tratamenduaz arduratzen diren agitarien aldetik, informazio falta dago funtzionarioen jokabidean, biztanleria zibilak bere eskubideak baliatu nahi dituenean.

Lege hutsuneak aztertzea ere garrantzitsua da, herritarren segurtasunerako gailu elektronikoaren garapen teknologikoak datuen babesaren arloko legediaren garapena gainditzen du, proportzionaltasun eskubidearen aplikazioa nabarmendu behar da, teknologia zaintzarako eta gizarte hokesiorako tresna izan dadin, komunitatearen askatasun eta eskubideen murrizketarekin lotuta ñabardurarik ez hartzeko.

Bestalde, Gaizkak, kolektiboaren kidea, Datuak Babesteko Agintzaritzak oraindik erantzun bat zor diela uste du, irudi horietara askatasunarekin sartu nahi duten herritar guztientzat egokia den protokolo bat mahai gainean jartzeko edo haien eskubideak eta betebeharrak zein diren jakiteko.

Era berean, Julianek, beste muchacholoco batek, sentitzen du proiektua egiazkoa izango dela Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak babestutako irudira sartzean. Ekintza hau proiektuan lortutako emaitza estetikoak baino garrantzitsuagoa izango da, eta herritarren aurrean lekukotza gisa erabili ahal izango da, datuen babesari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea baliatu nahi duen egoeraren bati aurre egitean. Halaber, Euskal Herriko komunitateari Arartekoak Euskadiko espazio publikoan bideozaintzari buruz egindako azterlana kontsultatzera gonbidatzen dio hurrengo estekan:

<https://www.ararteko.eus/es/videovigilancia-por-seguridad-ciudadana-en-el-ambito-publico-de-euskadi-analisis-desde-la-perspectiva-de-los-derechos-fundamentales>

Wikitokiren laguntza eskertu nahi dugu, Lornari eta Isari batez ere, proiektuarekin aurrera egiteko emandako babesagatik eta laguntzagatik. Baita tailerrera hurbildu eta esperientzia hau gurekin partekatu zuten guztiei, eta auzoko jendeari eta kide izan nahi zuten okindegeiei ere.